

USURBILGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo lurzorua eta ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
 - **Usurbilgo Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena (2004ko irailaren 14ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hiri-lurraren eta 102, 213, 313, 314, 321, 322, 801, 802 eta 851 zona katastralen mugapenak aldatzen dira, eta 324, 602, 604, 605, 606, 607 eta 852 zona katastral berriak sortzen dira.

2.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:

Zona Hirigintz. klasif (EK) Eraik Kos. (BEE) Balio Erag. (MP) Apark Moduloa.

324	HIRITARRA	510,86 €	500,00 €	10.818,22 €
602	HIRITARGARRIA	510,86 €	352,72 €	8.414,17 €
604	HIRITARGARRIA	510,86 €	300,51 €	8.414,17 €
605	HIRITARGARRIA	510,86 €	458,27 €	11.419,23 €
606	HIRITARGARRIA	510,86 €	510,86 €	10.818,22 €
607	HIRITARGARRIA	510,86 €	458,27 €	12.020,24 €

Zona Hirigintz. klasif (BEE) Balio Erag. (MP) Apark Moduloa.

852	HIRITARRA	138,23 €	6.611,13 €
-----	-----------	----------	------------

3.- 324 etxebizitzarako zonan dauden kaleek edo kale tarteek U azpizona izango dute.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoa.

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoa.